

## **INGURUMEN HITZAZ**

Euskaltzaindiak, Aramaion, 1999ko irailaren 24an, egindako osoko Batzar Agiritik jaso:

“*Ingurumen* hitzari eman beharreko «bultzada».

H. Knörr jaunak gogorarazi du aspaldi onartu zuela Euskaltzaindiak *ingurumen* hitza eta *Hiztegi Batuan* jaso dagoela. Hain zuzen, Euskaltzaindiak hitz hau ikusten du beste edozein baino egokiago ekologia gaietarako. Hori dela eta, komeniko omen litzateke administrazioan eta ardura dutenei erabaki hau gogoratzea, *erkidego* hitzarekin egin zen bezalatsu. Onartu da proposamena. Gutun bana egingo zaie, horrenbestez, Eusko Jaurlaritzako P. Ormazabal Sailburuari, Nafarroako arduradunari, Diputaziokoei eta, agian, iparraldekoiei ere bai, gogoratuz *ingurumen* hitza izango litzatekeela «medio ambiente» delakoari erreferentzia egiteko hitz aproposena euskaraz.”